



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Osteguna  
2010-02-04**

VIII. URTEA 1.920. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Andoni Iturzaetak, Joxelu Anduezak eta Onintza Lasak eman zuten aurtengo Inauterien berri. I. TERRADILLOS

## 200 PARTE-HARTZAILEK GIROTUKO DUTE KALEA EUREN ASMAKIZUNEKIN

**TOLOSA** Geroz eta gertuago ditugun Inauterietan karroza eta konpartsekin batera, txarangak eta zezenak dira ardatz nagusiak 2

## Eguzkipean ospatu dute auzoko San Blas eguna

**TOLOSA** Mezara joandakoek, eskoletakoek... guztiek erosi dituzte erroskilla preziatuak 3



16:00etatik 16:45era izan zen Ertzaintza Inpernu Gaztetxean. R. CALVO

## Ertzaintza Inpernu Gaztetxean egon da ordubetez

**TOLOSA** Eraikina «eraisteko arriskua oso handia» delako sartu dira ertzainak eta perituak 6



Tolosako inauterietarako  
eskaintza berezia

**angula kiloa 390€**

arraindegia honen eskutik dator eskaintza:

ARTOLA arraindegia • Tel.: 943 675 577  
Korreo 33 - TOLOSA

festa on guztioi!

# Aurten ere «indartsu» datoz

**Tolosa** » 200 parte-hartzailek eman dute dagoeneko izena karrozen lehiaketan; ia prest dago dena Inauteriei ekiteko.

**INIGO TERRADILLOS**

Festari murgiltzen edo berotzen hasteko larunbat honetan Kalde-  
reroak izango dira Tolosan Inau-  
terien iragarle, eta handik bost  
egunera, Ostegun Gizenean, le-  
hertuko da jaia. Astebetez, algar,  
dantza, musika eta eromena izan-  
go da nagusi herrian, eta herritar ia  
orok nolabaiteko etenaldia egingo  
dio bere eguneroko bizimoduari,  
festan bete-betean murgilduz.

Aurtengo Inauterietan ere da-  
goeneko ziurtaturik dago, urtero  
bezala, festa handia izango dela.  
Izan ere, urteko jairik zoroenetako  
protagonistek ez dute hutsik egin-  
go. Atzo Udaleko ordezkariak egi-  
niko aurkezpenen azaldu zuten  
bezala, 200 dira dagoeneko karro-  
zen eta konpartsen lehiaketan izen-  
a eman dutenak. «Zezenak eta  
txarangak lirarteke Inauterietako  
beste bi ardatzak, horien inguruan  
sortzen den giroarengatik», adie-  
razi zuen Andoni Iturzaeta Kultura  
zinegotziak. «Herritarren festa»  
direla Inauterietatik azaldu zuen, eta  
«Udalaren egitekoa jaietako hiru  
ardatzak koordinatzea eta babesa  
ematea» dela.

## Gaueko kontzerturik ez da izango

Krisiak bada, ez duela eraginik  
izan parte-hartzearekin esan dai-  
teke, Ferialekua txiki ere geratu  
baiza aurten, karrozak eraikitzen  
daudenentzat. Aurrekontuan, bai-  
na, nabaritu da behar bada, eta ho-  
rrek, egitarauari dagokionez,  
gaueko kontzertuetan izan du era-  
gina, aurten ez baitira izango.  
«Diru gutxiago izan dugu, eta  
Inauterietako beste osagai guztiei  
bideratutako laguntza mantendu  
nahi genuenez kontzertuetatik  
kendu beharra izan dugu; hori bai,  
trukean, gauero bitxaranga ariko  
dira kaleak alaitzen», azaldu zuen  
Kultura zinegotziak. 225.000 eu-



Onintza Lasa Berdintasun zinegotzia, Andoni Iturzaeta Kultura zinegotzia eta Joxelu Andueza Gazteria zinegotzia. I.T.

roko aurrekontua izango dute aur-  
tengo Inauterietan, pasa den urteko-  
ek baino ia 22.000 euro gutxiago.

## «Guztiak ondo pasa, baina guztiakiko errespetuz»

Udaleko Berdintasuna, Gizartea  
eta Kultura sailek bultzatuta, iaz  
bezala, berdintasun kanpaina jar-  
riko dute martxan Inauterietan.  
*Nor astoago?* izango da kanpainan  
leloa, eta «emakumeekiko  
sano jokatzeko hausnarketa» bul-  
tzatu nahi du. Onintza Lasa Ber-  
dintasun zinegotziak atzoko aje-  
rraldian esan zuen bezala, «guz-  
titan festa dira Inauterietan,  
salbuespenik gabe, eta guztiok  
ondo pasatzea nahi dugu, guztiakiko  
errespetuz». Lasak gehitu zuen  
maiz emakumeek aisialdi unetan  
beldurra izaten dutela, eta horre-  
gatik, eurenganako errespetuz jo-  
katzeko deia zabaldu zuen.

## Aurten ez dago trabarik kalean

Pasa den urteko Inauterietan kole-  
ktorearen obrak oztopo izan zi-  
ren hainbat kaletan karrozak igar-  
rotzeko zailtasunak izango zirela-  
ko eta ondorioz ohiko ibilbidea  
aldatu beharra izan zen. Aurten,  
ordea, obrak amaitu dituzte, eta

beraz, oztopo hori gaindituztat  
eman daiteke. Hala, karrozak eta  
konpartsek ohiko ibilbidetik egin-  
gote desfilea. Zaldunitan eta As-  
teartitan karrozak bi multzotan  
banatuko dira zozketa bidez, eta  
erdiak goitik irtengo dira etagaine-  
rakoak behetik. Astelentan, be-

## 22.000 euro gutxiago izan dira aurten, eta ondorioz, kontzerturik ez jartzea erabaki dute

rriz, aisialdi taldeen txanda izango  
da, eta hauek goitik hasiko dira  
dantzari. Azken hauen kasuan,  
bada aldatetarik, izan ere, euria  
egingo balu Usabal kiroldegian es-  
kainiko lukete euren ikuskizuna,  
eta bertan taldeetako kideek eta  
begiraleek baino ezingo lukete sar-  
tutu.

## Zezenetan neurriak

Erregelamendu berria onartu du  
Eusko Jaurlaritzak zezenen ikus-  
kizunen inguruan, eta ondorioz,  
hainbat aldaketa izango dira Inau-  
terietan. Aldaketa hauek «ikusle  
eta parte-hartzaileen segurtasuna  
bermatzeko» egin dituzte, eta ba-

tez ere, aforoari eta sarrera-irteer-  
ei eragingo diete. Hala, esaterako,  
zaldi patioetik ez dute jendea sar-  
tzen utziko lehenengo txaranga  
sartu arte, hesiak jarriko dituzte,  
eta tendidoa eta kale txikia zaindu-  
ko dituzte jende gehiegi egon ez  
dadin. Bestalde, «aforoa kontrola-

## Zerkausian mahaiak eta aulkiak jarriko dituzte, eta berrikuntza bezala, jatekoa ere emango dute

tzaldera», Ostiral Mehe eta Aste-  
artita egunez izan ezik, beste guz-  
tietan sarrera ordaindu beharko  
da.

## Garraio publiko eta aparkalekuak

Ohi bezala, garraio publiko erabi-  
biltzea gomendatu dute Udaletik  
Tolosako Inauterietara etortzeko.  
Baitrenek bai eta autobusek ere or-  
dutegi berezia jarriko dute jai egu-  
netarako. Autoz datozenentzat  
aparkaleku pribatu nahiz publiko-  
etan «aukera zabal» dagoela ere  
adierazi dute.

## Zerkausian jantokia

Pasa den urtean Zerkausia zabal-  
du zuen Udalak herritarrek bertan  
bazkaltzeko aukera izan zezaten.  
Aurten ere mahaiak eta aulkiak jar-  
riko dituzte horretarako eta bero-  
gailua piztuko dute. Berrikuntza  
bezala, bertan jakiak egingo direla  
salgai aurreratutako dute.

## Barrakak betiko prezioan

Barrakak aurten ere tren geltokian  
kokatuko dituzte, eta azken bost  
urteetako prezio berbera izango  
dute. Azaldu dutenez, «ahalegin  
berezia egin da Udaletik prezioa  
mantentzeko, eta prezioa jaitsi  
ahal izateko lurrarengatik ez or-  
daintzea ere eskaini zaie, baina ez  
dute nahi izan».

## Laburrak

### TAKeko taldeen aurkezpena igandean

**TOLOSA** » Igande honetan Tolosal-  
deko Arraun Klubak (TAK) den-  
boraldi berrirako taldeak aurkez-  
tuko ditu. Aurkezpen moduan es-  
tropada egingo dute txapelketetan  
Tolosaldearen izenean parte har-  
tuko duten taldeen artean. TAKek  
proiektuan lagundu duten guztiak  
gonbidatu nahi ditu ekitaldira, bai-  
ta gurusoak eta taldea ezagutu  
nahi duen oro ere. Aurkezpena  
igandean izango da, Zerkausiarren  
behaldean, 11:00etatik aurrera.

### Inauteri dantzaren entsegua, bihar 20:30ean

**LIZARTZA** » Asteburuan, lizartza-  
rrek inauterietan ospatuko dituzte.  
Dantzari gogoratu nahi diete,  
bihar ostirala, 20:30ean Inauteri  
dantzaren entsegua egiteko elkar-  
tuko direla. Hain zuzen ere, bihar  
jarraituko dute festekin Lizartzan.  
Mozorro festa izango dute  
14:00etatik 15:00etara, eta ondo-  
ren, kalejira herrian zehar. Etzi eki-  
taldi ugari izango dituzte egun  
osoan. Goizeko kalejirak esnatuko  
ditu herritarrak eta ordutik ez du  
etenik izango jai giroak.

## T Telefonoak

### Larrialdia. ((112))

#### OSASUNA.

**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212

**Anoeta-Alkiza-Hernalde.**

Medikua: 943 65 23 39

**Asteasu.** Medikua: 943 692423

**Baliarrain.** Medikua: 943 889003

**Berastegi-Elduain.**

Medikua: 943 683361

**Bidegoian.** Medikua: 943 681134

**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411

**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329

**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720

**Leitza.** Osasun z.: 948 510800

**Orendain.** Medikua: 943 655595

**Orexa.** Medikua: 943 682228

#### Tolosa.

**Anbulatorioa, larrialdia:** 943 461111

**San Esteban:** 943 006800

**Gernikako arbol:** 943 006900

**Amarozko dispen:** 943 672637

**Asuncion klinika:** 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

**DYA:** 943 672536

**Gurutze Gorria:** 943 674888

**Villabona.** Anbulat.: 943 006970

**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 943 693930

#### GARRAIOAK.

**Renfe:** 902 24 02 02

**Donostiako autobusa:** 943 361740

**Tolosaldea bus:** 943 650621

**Leitzaran autob.**: 948 221015

**Taxia:** 943 670420

**Taxia (Leitza):** 608 873016

#### BESTERIK.

**Ertzaintza:** 943 538820

**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858

**Tolargi:** 943 650016

**Iurrarendi egoitza:** 943 670325

**Tolosa gasa:** 943 675320

**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Lan bila.** Gizonezko bat lan bila  
dabil: pertsona helduak zaintzen,  
baserriko lanak egiten edota beste  
edozerlan lan egiteko prest dago  
bera. Interesa duenak deitu  
dezala telefono zenbaki  
honetara: 679 80 38 70.

### GALDUTAKOAK

■ **Katea.** Amezketako Zazpi-Itturri  
inguruan urrezko katea bilatu da  
duela egun batzuk. J. Z. inzialak

idatziak zituen bertan. Aurkitu  
duenarekin harremanetan jartze-  
ko deitu ondorengo telefono zen-  
bakira: 678 47 66 12.

### ESKAINITZA

■ **Bigi garbitasunak.** Bigi garbita-  
sunak, alfonbrak, etxeak, bulegoak  
eta abar garbitzeko prest. Deitu  
inongo konpromisorik gabe. Tele-  
fono zenbakiak: 638 94 46 04  
(Gurutze) eta 695 70 82 71 (Be-  
len).

### @ Facebook eta Twitter.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO  
HITZAK Facebook eta Twitter sare  
sozialetan ere dagoeneko badu  
bere ataria. Facebook-en esatera-  
ko, eskualdeko egunkariaren lagun  
eginez gero, zuzenean jaso ahal  
izango dituzu zure herriko azken  
albisteak. Gero eta lagun gehiago  
atxikitu dira, eta jada beste modu  
batera jasotzen dute informazioa.  
Bestalde, egunkariaren webguner-  
a lotura zuzena du eta honen bi-  
tartzet ere heldu zaitezke. Twitter  
bidez ere, eskualdeari buruzko az-  
ken berriak jaso ahal izango dituzu  
aurrerantzean:

[www.tolosaldekohitza.info](http://www.tolosaldekohitza.info)

## Bihar inauguratuko dute Oriako presa puzgarria

**Azpiegiturak** » Azken lanak direla eta frogak egingo dituzte eta bihar eguerdira arte oinez ezingo da ibaira jaitsi.

### ERREDAKZIOA

Oria ibaian, Errotaren parean, eraikitzen ari diren presa neumatikoaren lanak amaitzear dira. Hori dela eta, gaur eta bihar 13:00ak bitartean presa neumatikoaren puzte eta huste frogak burutuko dituzte. Froga hauen ondorioz, ibaiaren ur maila igo eta jaitsi egingo da, eta horregatik, erabat debekatuta egongo da ibaira jaiste, gorantz nahiz beheerantz.

### Bihar, inaugurazio ekitaldia

Inaugurazio ekitaldia, hala ere, bihar izango da 12:30ean. Ontziraldean, Zerkausiaren azpian, egingo dute, zehazki. Zintaren mozketan uretan burutuko dutela ere arduratu dute. Segidan, agintariak

hitz egingo dute eta ontziraldean bertan ikusgai izango den presaren bilakaerari buruzko argazki erakusketa zabalduko dute. Jarraian, presaren kontrol-gela ikusteko parada izango dute agintari zein kazetariak.

Osagarri gisa, kirol inauguratze-jarduerak ere burutuko dira ibaian 18:00etatik aurrera, Tolosaldeko Arraun Klubak antolatuta. Jarduera hauetan sail guztietako arraunlariak ariko dira, emakumezkoak nahiz gizonezkoak.

Lanaren oinarria, gomazko presa puzgarri bat jartzea izan da. Goma haizez puzten da, eta erabateko hustuketa minutu gutxiaren buruan egiteko gaitasuna duen sistema bat dauka (automatika eta eskuzkoa), uholde handiei aurre egin ahal izateko, ibaiari oztopoa berehalaxe kenduz. Estatu mailako konpartirik altuena da, eta Europa mailako seigarrena.

Tokiko Inbertsioetarako Estatu Fondoarekin egin diren bost obreratik azkenena da hau.



Jende ugari hurbildu zen atzo Tolosako auzora erroskillak erosteko asmoz. E. EZEIZA

## Euripean hasi eta eguzkipean amaitu dira Sanblasak

**Tolosako** » Atzo ospatu zuten festetako egun handia; jende ugari hurbildu zen erroskilla gozoenak dastatzera.

### ERREDAKZIOA

Euripean, busti-busti eginda hasi zituzten jaiak joan den larunbatean, San Blas auzoan, eta eguzkipean, goxo-goxo amaitu dituzte. Erroskillengatik horren ezaguna den santuaren eguna ospatu zuten atzo Tolosako auzoan.

Goizean jende ugari hurbildu zen atzoko elizkizunera. Hasieran hotz egiten bazuen ere pixkanaka eguzkia indarra hartzen joan zen eta gogotik berotzen zuen eguerdi alderako. Hala, giroa ere animatzen joan zen. Urtero legez, Emendek elkarreak hainbat ekitaldi antolatuta zituen festa egunaren harira. 12:30ak aldera, toka txapelketa jokatu zen esaterako.

### Jende asko mezaren aitzakian

Antolatzaileak gustura agertu ziren atzo, jende asko hurbildu baitzen mezaren aitzakian. Gehienak ere, erroskilla poltsa besazpian zutela joan ziren San Blasetik. Beste askok pintxo bero bat eta tragotxo bat hartzeko ere aprobetxatu zuten. Emendek elkartekoen hitzetan, oro har, jende heldua hurbiltzen da Tolosako auzoko jaietara, baina erreleboa ziurtatzeko edo urtero, Tolosako ikastetxeetako ikasleek ezinbesteko bisita izaten dute San Blasera. Jai egunetako batean gutxienez hurbiltzen baitira Hirukide eta Laskoraingo ikasleak, ingurua ezagutzeko eta bide batez, erroskillak dastatzeko.

Festei hurrengo urtera arte, trikiti doinuekin esan zieten agur. Elustondo anal-arrebak bertaratu ziren jendea dantzan jartzeko.



Atzo toka txapelketa jokatu zen eta herenegun berriz disko festa izan zen. E. E.



Reinosako proban parte hartu zuten Mahala triatloi taldeko kideak. HITZA

## Taldekakoan bigarren geratu da Mahala TTT

**Triatloia** » Reinosako XXIV. Neguko Triatloian hartu zuten parte asteburuan; Aranburu seigarren sailkatu zen.


### ERREDAKZIOA

Pasa den asteburuan jokatu zen Reinosako (Kantabria) XXIV. Neguko triatloia. 9kilometro korrika, 24 bizikletaz, Alto Campoo igoaz, eta 10 kilometro eskiatuz, osaturiko zirkuitu gogor bati egin behar izan zioten aurre. Lasterketa osoan elurra mara mara aritu zen eta egin zuen hotzarekin batera, lasterketa ere eta gogorragoa suertatu zen.

Mahala-Tolosaldeko Triatloi

taldeko kideek emaitza oso onak lortu zituzten bertan. Igor Aranburu 6. postuan iritsi zen, eskian saio izugarri baten ondoren eta Josu Mendizabal 10. izan zen, bizikletako saio ikusgarri baten ostean. Taldekako sailkapenean 2. postua erdietsi zuten, eta taldekideak penaz agertu ziren sari hau irabazteko hain gertu egon eta gero ezin izan zutelako lortu. Aterako beste taldekideak, Ion Marin, Edu Gonzalez, Asier Saez, Ion Artutxa eta Iñaki Insausti, atzeraxeago iritsi ziren.

Neguko probak amaituta, jada Euskadiko Duetloi zirkuituko probetan hartuko dute parte hilabete honen amaieratik maiztera bitartean. Orduan udako denboraldia hasiko baitute triatloietan.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Ander Lizarralde, Iñaki Apalategi eta Unai Muñoa Sorgin-orratzak taldekoak finalean izango dira. HITZA

## Armiarmak eta Mandeulien arteko lehia Zizurkilen

**Bertsolaritza** » Asteasun egindako saioan Sorgin-Orratzak taldea gailendu zen Labezomorroko taldearen aurka.

### ERREDAKZIOA

Beterriko III. Bertsolari Txapelketako lehenengo kanporaketa Asteasuko Aitz-Ondo elkartearen jokatu zen. Urtarrilaren 29an izan zen eta iluntzeko zortzi eta erdietarako «elkartea lepo» bete zela adierazi dute antolatzaileek; «80 lagunen-tzak mahaiaik» prestatu zituzten.

III. Txapelketa honetan parte hartuko duten lau taldetako bik egin zuten aurrez aurrekoa: Sorgin-orratzak taldean Iñaki Apalategi, Ander Lizarralde eta Unai Muñoa lehiatu ziren eta Labezomorroen taldean Iñigo Izagirre, Jokin Uranga eta Jokin Labayen.

Afal ostean, Egoitz Aizpuru gaitzaitzailek berehala jarri zituen lanean bi bertsolari taldeak. Lehenik, Sorgin-orratzak izan ziren agurra kantatzen. Aurreko urteetan bezala, «bi taldeek ahalegin berezia egin behar izan zuten, etxetik landuta ekarritako agurrak ikusentzuleak harrapatzeko eta txunditzeko». III. Txapelketa honetan entzulea baino ez da epaile lanak

egiten dituen eta beraiek izan ziren Villabonako finalera nor pasa erabaki zutenak.

Sorgin-Orratzak taldeak bere agurrean denboraren makina irudikatu zuten. «Bertan egungo bertsolari moderno eta friki xamar batzuegandik abiatuz Basarri, Lazkao-txiki eta Mañukortaren garaietaraino eramán gintuzten, oso umoretsu» adierazi dute. Jendeak txalo zaparradaz eskertu zuten ongi prestatuak agur umoretsua. Labezomorroen taldeak, berriz, *Ta galtzaundi* kanta ezaguna *Ta arrautzaundi*-n bihurtu zuten. Bi puxika hankartean puztuta harro azalduz, agurra etxetik ia prestatu gabe agertu ziren. Bi taldeek agur umoretsua egin zuten, saioari hasiera emateko.

Ohitura den moduan segidillan eman zioten amaiera saioari: «afaldarrak zirikatzen aritu ziren, jendearen gozagarri inondik inora. Antolatzaile eta sukaldariei eskerrik beroenak emanda agurtu zuten bertsolariek Asteasu» adierazi dute antolatzaileek.

Aurreko edizioetan bezala, saioa goizeko ordu bata eta erdiak arte luzatu zen, eta bertaratu ziren guztiak benetan estimatu zuten bertsolari gazteek egindako lana.

Gauean zehar bi taldeek elkarrekin izandako lehia bizia izan

zen, baina «entzuleek garbi xamar izan zuten botoa nori eman. 63 lagunek eman zuten botoa eta haietarik 42k Sorgin-orratzak taldearen alde egin zuten» diote. Beraz, Lizarralde, Apalategi eta Muñoak osaturiko taldea izan zen Villabonan ospatuko den finalerako lehen sailkatua.

### Armiarmak eta Mandeuliak

Bigarren talde finalista larunbatean jakingo da zein izango den, Zizurkil goiko Zentroan egingo den bertso-afarian. Egun horretan lehiatuko dira Armiarmak eta Mandeuliak taldeak. Armiarmen aldetik Haritz Etxeberria, *Ministro*, Arkaitz Oiarzabal, *Xamoa*, eta Beñat Lizaso izango dira eta Mandeulien aldetik Iñaki Gurrutxaga, Agin Rezola eta Jon Martin. Gai jartzaila berriz, Iker Iriarte izango da.

Antolatzaileek adierazi dute bigarren kanporaketa honetarako txartelak salgai daudela oraindik: Zizurkil goiko Zentroan bertan, Larramendi Bazkuran egoitzetan, Villabonako Ogiogoxo okindegian eta Andoaingo Ernaitza liburu dendan daude. 943300733 telefonora deituz ere eskura daitezke, txartelak aurretik ordainduz gero.

### » II. KANPORAKETA

#### Hilak 6, Zizurkil

■ **20:30ean.** Zizurkil Goiko Zentroan.

■ **Armiarmak.** Haritz Etxeberria 'Ministro', Arkaitz Oiarzabal 'Xamoa' eta Beñat Lizaso.

■ **Mandeuliak.** Iñaki Gurrutxaga, Agin Rezola eta Jon Martin.

## 'Berriak Berri' aldizkari informatiboaren inguruko galdetegia

**Anoeta** » Otsailaren 10a da galdetegia aurkezteko azken eguna. Udalak herritar guztiei parte hartzeko deia egiten die.

### ERREDAKZIOA

Duela urte batzuetatik hona, Anoetako Udalak aldizkari informatibo bat egiten du herritarren parte hartzearekin. *Berriak Berri* izena du eta urtean hiru aldiz kaleratzen da. Orain urtebete inguru, aldizkariak zenbait berrikuntza izan zituen; atalak gehituz edota formatu eta diseinua aldatuz.

Honela, galdetegi labur batzuk utzi dira herriko hainbat tokitan: udal txean, liburutegian, KZ gunean, kiroldegian, denda eta tabernatan.

### Galdetegia iritzia emateko

Herritar, parte hartzaile, irakurle, eta herriko eragileen artean galdetegi moduko bat egitea egokia iruditu zaio Udalarri. *Berriak Berri* bere garapena eduki dezan herriko jendearen ekarpenak kontuan hartu nahi dituzte.

Zer aldatuko zenukeen, gustatzen al zaizun, maiztasuna egokia ote den edo edukiak interesgarriak ote diren jakin nahi dute. Baita teknologia berriak erabili beharko liratekeen edota beste edozein iradokizun edo proposamen izanez gero ere, galdetegiaren bertan adierazi daitezke.

Udalak, alde zuretik eskerrak emanez, herritarrek galdetegi osatzera animatu nahi ditu. Udal txeko gutunontzian edo [toto@anoeta.net](mailto:toto@anoeta.net) helbidean jasko dira otsailaren 10a baino lehen.

## Mikel Urdangarin Anoetako Gaztetxean

### ERREDAKZIOA

Ostiralean Mikel Urdangarin kontzertua eskainiko du Anoetako Gaztetxean 22:30etik aurrera. Bere lan berria, *Zubia*, Tolosaldean aurkeztuta etorriko da.

*Zubia* bere azken diskoak, badu zerikusia aurrekoarekin, baina eraberean, erabat desberdina da. Bi diskoak daude ibai beraren alde

banatara, baina behin zubia igarota ikusten dugun paisaia erabat bestelakoa da. Ez dira hainbeste istorioak kontatzen, sentsazioak baizik; sentimenduak eta goera anurkeztuta etorriko da. Diskoaren gorputza soinua etereo, atmosferiko eta sentsualez bete da. Une gozok tarteka indarra hartzen dute eta intentsitatez agerian ikusten da.

## Ura eta zabor tasen hobariak eskuratzeko epea zabalik dago

**Zizurkil** » Otsailaren 25a da eskaria aurkezteko azken eguna. Dokumentazio guztia aurkeztu beharko da.

### ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Udalak, urari eta zaborrari dagozkion tasen hobariak eskuratzeko epea dagoeneko ireki duela jakinarazi du. Hobari hauek, herritarrek tasak ez dituzte ordainduko edota ordaindu beharrekoa gutxiago izateko eskubidea izango dute.

Hobari hauek eskuratzeko epea otsailaren 25ean, ostegunean, bukatzen da eta eskaera egin nahi du-

ten herritarrek, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte: familiako kide guztien NANaren fotokopiak, errolda eta elkarbizitza ziurtagiria, familiako kide guztien diru sarreraren ziurtagiria eta baita, errenta aitorenaren fotokopia edo egitea behartua ez dagoenaren agiria. Langabezi txartela eta INEMetik jasotzen den laguntzaren agiria eta azkenik, Foru Aizendak emandako ondasun agiriak ere aurkeztu beharko dira.

Ondasun bat baino gehiago duten herritarrek ezingo dituzte ura eta zaborrari dagozkion hobari hauek jaso. Informazio gehiago nahi izanez gero, Udal bulegoetan edo 943 69 10 12 edo 943 69 30 66 telefonoetan izango dute.

ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOAK  
IKAS KOMUNITATEA

**PEDRO M<sup>o</sup> OTAÑO HERRI ESKOLA**

Pagoratu osoa, 16 - ZIZURKIL

943 6914 78 Postu elektronikoak: 012041@hezkuntza.net



## Irakaslearen bideari jarraituz

**Alegia** » Txixi Orbegozo margolariaren bost ikaslek euren margolanak ikusgai jarri dituzte jubilatuen tabernan; gehienak erretratuak dira.

**IMANOL GARCIA**

Alegiako jubilatuen tabernan erakusketa berri bat dago ikusgai hil honetan. Txixi Orbegozo margolariak Tolosan duen tailerrean ikasten dutenek beraien lanak erakusten dituzte bertan. Mertxe Plazas, Eduardo Arruti, Maite Jimenez, Idoia Zubiria eta Marisa Vivanco ikasleak dira margolanak ikusgai jarri dituztenak.

Mertxe Plazas tolosarrak lau koadro jarri ditu, horietako hiru erretratuak. Laugarrena Tolosaldeko Arraun Klubari egindako omenaldia da eta bertan bi traineru azaltzen dira. «Erretratuak Txixiaren estiloan oinarrituta daude, asko gustatzen baitzait bere estiloa», azaldu du Plazasek.

Margotzeari dagokionez, bereztzat esperientzia «oso ona da. Ni-

retzako astero bi ordu hartzen ditut, nik nahi dudana egiteko. Betichean gustatzen zait margotzea eta hirugarren urtea da ikastarora joaten naizela». Ikasten dutena margolanetan erakusten dutela dio Plazasek.

Ondo iruditzen zaio bere lanak erakustea. «Badago jendea esaten duena ez zaiola gustatzen bere obrak erakustea, baina niri ez dit arazorik sortzen horrek», azaltzen du Plazasek. «Aurretik ere Tolosako taberna batean erakutsi genituen gure lanak eta koadro bat erosiko zidatela proposatu zidaten. Egin duzun lana nolabait aintzat

hartzen dizute eta horrek ahal dutzun heinean hobetzen joatera bultzatzen zaitu».


**Irakaslea, harro**

Txixi Orbegozo gustura azaltzen da bere ikasleek lanak erakusteko aukera dutelako. «Jendeak esaten die gauza politak egiten dituztela eta horrek poza ematen du», dio Orbegozok. «Hasieran marrazkiak egiten zituzten, orain olioarekin koloretan margotzen dute. Ni oso harro nago egiten dituzten lanekin. Beraiek jartzen dituzte obrak eta ni harro sentitzen naiz».

Jarritako koadroen erdiak pas-

telarekin egindakoak dira eta beste erdiak olio teknikarekin. Horrez gain, aipatutako marrazkia ere ikusi daiteke. Ikasleek irakasleari jarraitzen diote, margolan gehienak erretratuak direlako. «Ni erretratugilea naiz», dio Orbegozok, «eta nahi edo ez, azkenean irakasleak egiten duena egiten bukatzen dute».

Margolanak erakusteko «oso leku gutxi» daudela azaltzen du Orbegozok. Tabernak erakustoki bihurtzean, «museoetara joaten ez direnei margolanak begien aurrean jartzen dizkiozu, hau da, erraztu egiten duzu jendeak ikustea».



Zuzeneko bideo elkarrizketa **BERRIA.INFO**n

Otsailaren 4an, osteguna, 12:00etan

**Martxelo Otamendi,**

'Egunkaria'-ko auzipetua

zuzenean zure galderari erantzuteko prest.

Aldez aurretik egin ditzakezu galderak:

berria.infon bertan

aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

# Nagore Arozena eta Itsaso Urkizu frontoi motzeko txapelketan

**Pilota** » Emakumeen gomazko paletako Kutxa Sari Nagusia jarriko dute abian hilaren 7an, igandean, Alegian.

## ERREDAKZIOA

Frontoi Motzeko Emakumeen Gomazko Paletako Kutxa Sari Nagusia igande honetan, otsailaren 7an, jarriko da martxan.

Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak antolaturiko goi-mailako lehiaketa honek Euskal Herriko pilotaririk onenak biltzen ditu bere gain, eta,aldi berean, baita mundu mailakoak ere. Izan ere, inoiz trinketeko munduko txapel-dun edo Munduko Kopako txapel-dun izan dira, besteak beste, Maite Ruiz de Larramendi, Mari-txu Housset, Nagore Arozena eta Itsaso Urkizu. Azken bi hauek Lizartza eta Berastegiko pilotariak dira.

## » BIKOTEAK

### A multzoa

Patri Espinar-Claire Bordagaray  
Maika Elgezabal-Maite Ruiz  
Maritxu Housset-G. Manzisidor

### B multzoa

Amaia Etxeleku-Nagore Arozena  
Itsaso Urkizu -Ainhoa Montes  
Susana Muneta-Amaia Serre

### Ordezkoak

Naty Evaristti  
Mirentxu Okariz  
Uxue Fernandez

### Lehiaketaren sistema

Antolaketa Batzordeak 12 pilotari hautatu ditu, 6 bikote osatuz. Bikote hauek bi multzotan banatu dituzte, hiruna bakoitzean.

Multzo bakoitzean joaneko ligaxka bat jokatu dute, denek de-nan aurka. Ligaxkaren amaieran lehenengo eta bigarren postuetan



Itsaso Urkizu eta Nagore Arozena, Iparraldeko Ligako txapel-dunak, elkarren aurka ariko dira oraingoan. HITZA

saikaturiko bikoteek, elkarren artean gurutzatuta, finalerdiak jokatu dituzte norgehiagoka batera. Finalerdietako irabazleek finala jokatu dute eta, galtzaileek, ber-rriz, 3. eta 4. postua.

Txapelketa otsailaren 7tik mar-txoaren 7ra bitartean jokatu da.

### Lehen partidak igandean

Jardunaldi bakoitza pilotaleku ba-tean jokatu da eta guztira bost frontoitan ibiliko dira: Alegian,

Zumarragan, Urretxun, Bergaran eta Tolosan. Partida guztiak igan-de goizetan jokatu dira, 11:00etatik aurrera.

Nagore Arozena lizartzarrak Txapelketako lehen partida jokatuko du igande honetan, Alegian. Urkizu berastegiarrak atsedean hartuko du asteburu honetan eta bere lehen partida hilaren 14ean jokatu du Zumarragan. Tolosari dagokionez, bertan finalak jokatuko dira martxoaren 7an.

### EUSKAL HERRIKO TXAPELKETAN BIGARREN JARDUNALDIA ETZI

Ligaxkako bigarren jardunaldia jokatuko da etzi. Agirre-Aristorena leitzarrek Gasteizen jokatu dute, Pradera-Arzamendiren aurka.

Urkizuk Lendinezekin osatuko du bikotea eta Mallabian jokatu dute partida, Goikoetxea-Gutierrezen aurka.

# Ertzaintza Inpernu Gaztetxera sartu da

**Tolosa** » Atzo 16:00etan sartu ziren gaztetxean atea botata, eraikina «eraisteko arriskua oso handia» zelako.

## ERREDAKZIOA

Atzo 16:00ak aldera iritsi zen Ertzaintza Tolosako erdigunean dagoen Inpernu Gaztetxera.

Barruan bi pertsona baino ez zeuden eta hauek TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI esan zientenez konturatu ere ez ziren egin barrura sartu zirela, nahiz eta atea bota zuten sartu ahal izateko.



Ertzainak eta perituak Inpernu Gaztetxetik ateratzerakoan. R. CALVO

Antza, eraikina «eraisteko arriskua oso handia» da eta horregatik sartu zen Ertzaintza, perituak sartu eta eraikina aztertu ahal izateko. Ertzainak 16:45ak aldera joan ziren Inpernutik.

### Gela batean guztia aztertu bitartean

Ertzaintza iristerakoan barruan zeuden bi gazteek esandakoaren arabera, gela batean eduki zituzten ertzainek, perituak eraikina aztertzen zuten bitartean.

Gazteetako bat adin txikikoa da, eta beraz, Adingabeen Fiskaltza-ren eskuan utzi dute kasua eta beste berriz gaur bertan joango da

epaitegira, «higiezinaren ustezko usurpazio delitua eta kalteena» egotzi diotelako.

Gogoratu behar da, Tolosako Musika Eskolaren ondoan dagoen Korazonisten Eliza okupatzen du-ten bigarren aldia dela hau.

Lehen aldiz, pasa den abuztuaren 17an sartu ziren eraikina eta lau egun iraun zituen okupazioaren ikurrak Inpernu Gaztetxearen kanpandorrean. Ondoren Ertzainek, perituak eraikina aztertzen zuten bitartean.

Pasa den abenduaren bukaeran okupatu zuten Inpernu Gazte Asanbladako kideek berriz ere eraikina. Kontzertuak eta guzti antolatu dituzte bertan.

## U Urteurrena

II. urteurrena

### KOLDO ALTUNA AZURMENDI

(HAIMAR ALTUNA EUSKAL PRESO POLITIKOAREN AITA)

Gaur ere haizeak ireki digu bihotza nola ote ametsetan iratzarri zarela... Gure etxeko enborrak zutik darrai zurekin, aita, irri ta harrotasunez beti aurrera goazelako.

Urdiango haizetan borroka ta maitasuna!  
Maite zaitugu!  
Iosune, Haimar, Olatz, Irati, Edurne, Ekiñe



ORENDAIN  
2010eko  
otsailaren 4a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

# Pakita Arregi aresoarra ohorezko euskaltzain berri izendatu du Euskaltzaindiak

**Gizartea** » Hezkuntzaren Soziologiako katedraduna da Unibertsitatean, Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean.

Euskara irakasle aritu zen 60ko hamarkadan Joannes Etcheberry Andereño Eskolan, ikastegiaren zuzendari ere izan zelarik bederatzitzi urtez. Irakaskuntzan ez ezik, ikerketan ere ibili da, eta lan ugari argitaratu ditu lanaren eta hezkuntzaren soziologia eta euskararen alfabetatze arloetan.

Argitaratutako lan batzuk: *Irakaskuntzaren kalitateaz; Euskera en niños de diversos entornos escolares y familiares; Formación continua e innovación en las medianas y pequeñas empresas de Guipúzcoa*



Pakita Arregi aresoarra. HITZA

## ERREDAKZIOA

Urtarrilaren 29an, Euskaltzaindiak Donostian egindako osoko batzarrean, ohorezko euskaltzain berriak izendatu zituen. Orotara, 11 ohorezko berri izendatu zituen. Horien artean aurkitzen zen Pakita Arregi aresoarra.

Jakina denez, Euskaltzaindiak aldiro-aldiro izendatzen ditu ohorezko euskaltzainak, bere arautegiaren arabera, euskarari egindako «mesede bikainengatik». Ohorezko euskaltzainak azken izendapena 2004an egin zen. Gaur egun, 33 ohorezko euskaltzain dira.

## Pakita Arregi aresoarra

Hezkuntzaren Soziologiako katedraduna da Euskal Herriko Unibertsitatean, Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, eta Soziologia eta Politika Zientzietan Doktorea ere bada, Deustuko Unibertsitatean.

*en el marco de la globalidad y el aprendizaje permanente; Normalización Lingüística y Cultura en la Escuela. Sociología de la Educación en España...*

## » OHOREZKO EUSKALTZAIN BERRIAK

- **Pakita Arregi.** Areson jaioa.
- **Gorka Aulestia.** Jubilatua.
- **Joxe Azurmendi.** Idazle eta filosofoa.
- **Luiz Baraiazarra.** Kamel aldizkariko idazlea eta zuzentzailea.
- **Eramun Baxok.** Ipar Euskal Herriko mugimendu euskaltzalean (Euskaltzaleen Biltzarrean, Euskal Kultur Erakunde...) partehartzailea.
- **Martxel Etchehandy.** Belokoke abadiaren liburuzaina.
- **Ana Etxaide.** Jubilatua.
- **Joshua Fishman.** Filadelfian (Amerikako Estatu Batuak) jaioa. New Yorkeko Yeshiva Unibertsitateko ikerketarako katedradun emeritua da.
- **Jose Angel Irigarai.** *Pamiela* argitaletxeako edizio lanetan dabil.
- **Joxemari Iriondo.** Jubilatua.
- **Xabier Lete.** Idazle, poeta eta kantaria.

# Samaniego ikastetxeko ikasleak ingeleseko barnetegian izan dira

**Tolosa** » Ikasleek astebete igaro dute ingeles hutsez komunikatzen; «guztiz baliagarria» izan dela aipatu dute.

## ERREDAKZIOA

Pasa den astean Samaniego Ikastetxeko 6. mailako ikasleak Eusko Jaurlaritzak antolatutako Hizkuntza Murgiltzeko Egonaldian, ingeleseko barnetegian, egon ziren.

## Ingelesez bakarrik

Astelehenetik ostirala arte Berredoko barnetegian egon dira eta oso gustura etorri dira bai ikasleak bai irakasleak, Samaniegotik azaldu dutenez; «baliagarria izan da ingeleseko praktikatu eta hizkuntza honetako motibazioa areagotzeko».

Hasiera hasieratik ingeleseko soilik entzun dute eta ezinbestean ingelesez komunikatu behar izan dira. Bide batez ikasleen arteko harremanak sendotzeko eta lagun berriak egiteko baliagarria izan da.



Barnetegian lagun berriak egiteko aukera edukitu dute, hori bai, ingelesez. HITZA

## Laburrak

### Baserritarrez jantzita Banabar Jatea etzi

**LEITZA** » Atekabeltz gaztetxean jaio egingo dute etzi, hilaren 6ean. Lehenik Banabar Jatea egingo dute Gaztetxean bertan, 14:30ean. Mahaiaren gainean ondorengo menua edukiko dute: Banabarrak, aza, saiheskia, gazta eta irasagarrak, kafea eta kopa. Txartelak 13 eurotan aurkitzen dira salgai, Torrean. Bazkal ondoan, Leitzeko bertso eskolako bertsoari arituko dira bertsoetan. Gauen Garraxi taldeak kontzertua eskainiko du.

### 2010/11 ikasturteko aurre-matrikula egiteko aukera

**LEITZA** » Erleta Eskolatik jakinarazi dutenez, 2010/2011 ikasturteko aurre-matrikula egiteko aukera las-ter zabalduko dute, hain zuzen ere otsailaren 5etik 12ra. Bihartik aurrera beraz izena emateko aukera egongo da Erleta Eskolan. Leitzako Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako mailai eragiten dien oharra da eta informazio gehiago nahi duenak Eskola bertara joan behar du edo 948 5108 06 telefono zenbakira deitu.

# TXOTX

|   |                                 |                 |
|---|---------------------------------|-----------------|
| <b>Rezola</b>   | Tel.: 943 556 637               | Astigarraga     |
| Ipirita baserria - Sorolla Zaharra - <a href="http://www.rezolaagardotegia.com">www.rezolaagardotegia.com</a>                                   |                                 |                 |
| <b>Oialume Zar</b>  | Tel.: 943 552 938               | Astigarraga     |
| Mikel Arozamena bidai, 14 (autobus geltokitik gertu)  |                                 |                 |
| <b>Akelenea</b>   | Tel.: 943 333 333               | Astigarraga     |
| Oialume bidai 57 - <a href="http://www.akelenea.com">www.akelenea.com</a>   |                                 |                 |
| <b>Gurutzeta</b>  | Tel.: 943 552 242               | Astigarraga     |
| Oialume bidai 63 (sarrera Ergoibetik) - <a href="http://www.gurutzeta.com">www.gurutzeta.com</a>  |                                 |                 |
| <b>Lizeaga</b>  | Tel.: 943 468 290               | Astigarraga     |
| Gartziategi baserria, Martxene posalekua, 139   |                                 |                 |
| <b>Mina</b>   | Tel.: 943 555 220               | Astigarraga     |
| Txerrikietako posalekua   |                                 |                 |
| <b>Gartziategi</b>  | Tel.: 943 469 674               | Astigarraga     |
| Donostia Astigarraga bidai, 5 km. - <a href="http://www.gartziategi.com">www.gartziategi.com</a>  |                                 |                 |
| <b>Elutxeta</b>   | Tel.: 943 556 981               | Urnieta         |
| Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria   |                                 |                 |
| <b>Larre Gain</b>   | Tel.: 943 555 846 - 616 287 857 | Hernani         |
| Larre-Gain baserria, Ereñolu auzoa  |                                 |                 |
| <b>Otsua-enea</b>   | Tel.: 943 556 894               | Hernani         |
| Osiñaga auzoa   |                                 |                 |
| <b>Iparragirre</b>  | Tel.: 943 550 328               | Hernani         |
| Osiñaga auzoa, 10 - <a href="http://www.iparragirre.com">www.iparragirre.com</a>  |                                 |                 |
| <b>Urdaira</b>  | Tel.: 943 372 691               | Aginaga-Urtebil |
| Urdaira baserria  |                                 |                 |
| <b>Arratzain</b>  | Tel.: 943 366 663               | Urdail          |
| Arratzain zahar baserria  |                                 |                 |
| <b>Urbitearte</b>   | Tel.: 943 580 119               | Azaña           |
| Ergoiena auzoa  |                                 |                 |
| <b>Ohiarte</b>  | Tel.: 943 501 013               | Zorain          |
| Ohiarte baserria  |                                 |                 |
| <b>Isastegi</b>   | Tel.: 943 652 964               | Tolosa          |
| Aldaba Txiki auzoa - <a href="http://www.isastegi.com">www.isastegi.com</a> - <a href="mailto:isastegi@isastegi.com">isastegi@isastegi.com</a>  |                                 |                 |
| <b>Begiristain</b>  | Tel.: 943 652 837               | Begiristain     |
| Itarroz baserria  |                                 |                 |
| <b>Zabala</b>   | Tel.: 943 690 774               | Azusa           |
| Goragartze baserria (Golburu auzoa) - <a href="http://www.zabala.com">www.zabala.com</a> - <a href="mailto:info@zabala.com">info@zabala.com</a> |                                 |                 |
| <b>Sarasola</b>   | Tel.: 943 690 283               | Azusa           |
| Bebalera auzoa  |                                 |                 |
| <b>Ola</b>  | Tel.: 943 623 130               | Iruin           |
| Mezka auzoa, 102  |                                 |                 |
| <b>Lindurrenborda</b>   | Tel.: 948 637 212               | Lesaka          |
| Nabaz auzoa, 8  |                                 |                 |

## DIEZ Autobusak

Autobusak eta mikrobusak zerbitzu berria  
Mozio eta zerbitzu berria  
Goragartze, Iruin, Urdail, Urdaira, Urdaitze, Urdaitze...

Mundua 24h: Tel.: 943 28 84 16 | Fax: 943 27 11 37 / 20012 DONOSTIA  
Posta elektronikoa: [moliad@autocaresdiez.net](mailto:moliad@autocaresdiez.net)



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta/Leitza:** 687 410 022. anoeta/leitza@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra/Leitza:** 687 410 032. ibarra/leitza@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza/Leitza:** 687 410 118. leitza/leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.  
■ **Lekunberri.** Azpiroz M. A. Aralar kalea, 7. 112.

### » TELEBISTA

**28 Kanala**  
**08:30.** Zahar berri. **09:00.** Muka-Muka. **09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** Kafet' erdi. **10:30.** On ein!  
**11:00.** Sakonduz. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Kultur zulo. **12:30.** Wazemank. **13:15.** Klipak. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Kafet' erdi. **14:30.** On ein! **15:00.** Sakonduz. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Kultur zulo. **16:30.** Wazemank. **17:15.** Klipak. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** Gipuzkoa Kultura. **18:30.** EH Lau Haizetara. **19:00.** 16 mm. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Izarren ametsa. (\*16:30etik 20:00etarako blokea 4 ordu orrepikatuko dute)  
**HITZAK** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneren eta iritzien erantzukizunik.

# Erraldoiak eta buruhandiak ere prest daude iristear diren Inauterietarako

**Tolosa** » Kaldereroak ginean ditugu eta Inauteriak ere ate joka; herrian ia guztia prest dago jaietan murgiltzeko.

### ERREDAKZIOA

Azken urteetako ohiturari jarraiki Kaldereroetako eta Zaldunita bezperako goizak Tolosako erraldoien eta buruhandien konpartsa-ko pertsonaiez alaituta egongo dira.

Kaldereroetako larunbatean, 10:30ean irtengo da konpartsa Plaza Zaharretik eta 13:30ean amaituko du leku berean. Zaldunita bezperan ere ordu berean irtengo dira Plaza Zaharretik, baina bukatu Gernikako Arbolan egingo dute 13:30ean.

Domenjon de Andia, Catalina de Tapia, Bordondantzaria, Nes-

katila eta Peio eta Isabelita pertsonaia erraldoiak ibiliko dira herriko kaleetan dantzatzan Tolosako Gaiteroak-Dultzaineroak taldearen laguntzarekin.

### Entsegu, konponketa eta bilera ugari

«Atzean geratuko dira orduan entseguak, konponketak, azken ukituak, bilerak eta beste abar luze-batetan sartutako ordu guztiak, figura bakoitza mantentzeko beharrezkoak izan direnak», argitu dute Tolosako erraldoi eta buruhandien konpartsa-aren ardura-dunek.

Buruhandiak ere izango dira ka-lean, noski; Aker eta Sorgina, Ostegun Gizona eta Ostiral Mehea, azken hau 'kokotxas' ezizenaz agian ezagunagoa dena, Kaldere-ro, Txilabas eta Txantxo. «Guztiak beteko dituzte haurren ametsak, hori bai, maskuri beldurgarriaren

pim, pam, pum guztiez lagunduta», diote.

### «Etxe berria» Bonberenean

«Aurten gainera konpartsak urte berezia izan du, bere etxe berria estreinatuta baitu Bonberenean, proiektu serio batizan da, zeinetan gogor lan egin duten, eta oraindik ere gogor lan egiten jarraitzen duten atsedetik gabe. Leku honetan

erraldoiak pozik eta ondo zainduta daude. Etxe berri honetan entseguetarako lokalak eta sormengunea bilduko dira, zalantza gabe, Tolosan orain dela askotxotik behar ziren instalazioak, hain zuzen, eta beste behin ere kolektibo honen gure kulturarekiko sentsibilitatea erakutsi du. Zorionak eta eskerrak asko», gaineratu dute konpartsa-aren ardura-dunek.



Konpartsak Bonberenean gordetzen ditu erraldoiak eta buruhandiak. HITZA

## A Agurrak



### Urte askoan!

**Tere Albizu Arruti (Tolosa).**  
Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik, atzoko partez.



### Zorionak!

**Xue Munduate Zabala (3 urte, Anoeta).**  
Aitona eta amona nahiz Aitor bihurriaren partez zorionak!

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak: \_\_\_\_\_ • N A : \_\_\_\_\_

• Lanbidea: \_\_\_\_\_ • Jaioteguna: \_\_\_\_\_

• Helbidea: \_\_\_\_\_ • Herria: \_\_\_\_\_

• P.K: \_\_\_\_\_ • Tel.: \_\_\_\_\_

• Posta elektronikoa: \_\_\_\_\_

• Kontu zenbakia: \_\_\_\_\_